

AMERIKETAKO BIDAIA

UNITED STATES
LOS ANGELES
INTERNATIONAL AIRPORT
CALIFORNIA
OF AMERICA

INTERPRETEAK
MIREN ARRIETA
NEREA MAZO

★★★★★
ZUZENDARITZA
MIREIA GABILONDO

EGILEA
PATXO TELLERIA



Produktion:

TantTaka
teatro

ELABORACIÓN Y DIRECCIÓN DE OBRA

CONSEJO REGULADOR DE LA CULTURA

AYUDA ECONÓMICA DEL GOBIERNO

AYUDA ECONÓMICA DEL GOBIERNO

ESKENA

PORTALI

AMERIKETAKO BIDAIA

“Ameriketako bidai” honetan, bi aktore gazte, bi nerabeek biziko duten istorio batean murgilduko dira adin guztientzat pentsatuta dagoen ikuskizun batean, munduaren zabaltasuna eta herrialde eta hizkuntza ezberdinak ezagutzeko gogoia pizteko.

Ameriketara pasatako ikasturte bat kontatuko digute, ingeleza eta bizitzaz ikastera egingo duten bidaiak, gizakiok norberaren ezagueran egiten dugun bidai horietako bat.

Erritmo biziko ikuskizuna, pertsonai aldaketa bizkorrak, euskeraz eta ingelesez, kantua eta musika zuzenean izango dituenak.

SINOPSIA

Bi nerabe euskaldun, Jone eta Maria, Estatu Batuetara etorri dira ikasturte osorako. Oso desberdinak dira, eta ez dira konpontzen. Jonek “amerikarren bizimodua”-ri buruzko iritzi ona dauka. Mariak yankiekiko aurreritzi asko ditu. Aireportuan daudelarik, Jone-ri bere ekipaia eta dokumentazioa lapurtuko diote. Poliziak latino inmigrante ilegaltzat jo eta atxilotuko dute.

Hizkuntza arazoak eta aurreritzi razialak direla eta, egoera kafkiano bat jasango du. Astebete dramatiko bat pasa ostean, Mexikoko mugara deportatua izan baino lehenago askatuko dute.

Jonek hainbeste miresten zuen Amerika horren alde iluna eza gutuko du. Maria, aldiz, adiskidetuko da orain arte gutxiesten zuen gizarte horrekin, jende solidarioa ezagutuko baitu.

Jonek eta Mariak kurtso osoa pasako dute Estatu Batuetan. Gaur da etxera bueltatzeko eguna. Hasierako aireportu berean elkartu dira. Orain urte bete elkarri destainaz begiratzen zieten arren, orain badakite betirako adiskideak izango direla.

FITXA ARTISTIKOA

Egilea

PATXO TELLERIA

Interpreteak

MIREN ARRIETA

NEREA MAZO

Zuzendaritza

MIREIA GABILONDO

Zuzendari laguntzailea

VITO ROGADO

Eszenografia

FERNANDO BERNUÉS

Argiztapen diseinua

DAVID BERNUÉS

XABIER LOZANO

Ikusentzutezkoa

DANIEL BERNUÉS

Jantzitegia

ANA TURRILLAS

Argazkilaritza

MIKEL BLASCO

Teknika

ACRÓNICA PRODUCCIONES

Diseinu grafikoa

GRAFIKOKI

Administraritza

MAITE GORROTXATEGI

Ekoizpen exekutiboa

ANE ANTOÑANZAS

Ekoizpena

NAGORE PLAZAOLA

Banaketa

PORTAL71

Eskerrak

AITZIBER GARMENDIA, AIZPEA GOENAGA,
ASIER HERNANDEZ, DORLETA URRETABIZKAIA,
LUCÍA SOTO, JOANES UNAMUNO, OIHAN
MORENO, AKHONMEDIA.

EGILEA

Patxo Telleria (Bilbo, 1960) Pedagogian eta Euskal Filologian lizentziatua, aktore, dramaturgo-gidoigile eta zuzendari lanetan ibili da betidanik. Antzerki konpainia ezberdinetan aritu da lanean, Maskarada, Txirene, Tanttaka, Albená, Vaivén, Arriaga eta berea ere sortu du, Tartean Teatroa. Bere lan garrantzitsuenen artean, **Marxkarada**, **Torito Bravo**, **Kontenedoren baten istorioak**, **Euskera Sencilloaren Manifestoa**, zeinekin Max Saria eskuratu zuen, **Euskarazetamol**, **Lingua Nabajorum** (Max Saria eta Donostia Saria), **Enfarmados-LKM** (Max Saria), **El museo del tiempo**, Antonia Machin, **Soinujolearen semea**-**El hijo del acordeonista**, **Uda gau bateko ametsa**-**Sueño de una noche de verano**, **Último tren a Treblinka** edota **Ez dok hiru**, daude. Horretaz gain telebistan **Bi eta bat**, **Jaun da Jabe**, **Martin**, **Mi querido Klikowski** edo **Mugaldekoak** bezain telesail garrantzitsuetan izan da gidoigile. Eta zinean bere lehenengo luzemetraia idatzi eta zuzendu zuen 2008an Aitor Mazorekin batera, La máquina de pintar nubes, eta haren atzetik, **Bypass** eta **Igelak** filmeak etorri ziren. Bere azken gidoigile lanak **Operación Concha** eta **Soinujolearen semea** izan dira.




ZUZENDARIA

Mireia Gabilondo, (Bergara, 1964), Tanttaka Teatroa eta Tentazioa Produksioak-en kide sortzailetako bat da. Eskarmentu handia du zuzendaritzaren eta interpretazioaren munduan, eta Euskal Herriko arte eszenikoen irudi nabarmenetako bat da; izan ere, arrakasta handia izan du, dela antzerkian, dela dantzan, dela zinema edo telebistan. Berak zuzenduak dira **Kutsidazu bidea Ixabel**, **Mugaldekoak** eta **Amaren eskuak** luzemetraiak. Telebistan, aktore bezala ibili da **Jaun ta Jabe**, **Hertzainak**, **Mi querido Klikowsky**, edota Martin telesail eza-gunetan, azken horretan, baita gidoilari lanetan ere. Antzerkian, aipagarriak dira antzezle bezela **Soinujolearen Semea**, **Barealdi Magikoa**, **Muxua** eta **Utzi zure mezua seinalearen ondoren**, besteak beste. Eta antzerkian ere, baina zuzendaritza lanetan, hurrengo arrakasta hauek zuzendu ditu, beste askoren artean: Vaiven konpainiaren **Azken tren** **Treblinkara**, **Erlauntza**; Kukairen **Otehitzari biraka**, **Nhuy Illa**, **Gauekoak**; Arriaga Antzokirako **Hiru emakume** (Sylvia Plath); eta Tanttakaren **Emakumeak izarapean**, **Zazpi aldiz elur**, **El Florido Pensil** **NESKAK**, edo **El Sirviente**.



INTERPRETEAK



Miren Arrieta (Donostia, 1998) jaiotzez donostiarra izan arren, Estatu Batuetan denboraldi batez egon ondoren, gaur egun Madrilen bizi da bere ikasketak eta lana uztartuz. Pablo Malo zinegilearen **Tarde para el recreo** filmean izan zuen bere lehenengo partaidetza aktorea moduan eta horren ondoren, ETBren **Go!azen** telesaileko protagonistetariko bat izan da hiru denboraldiz. Bestalde, zineman **Soinujolearen semea**rekin berriro ikusi ahal izan genuen, Bernardo Atxagaren eleberrian oinarritutako filmea. Eta telebistan, ETBren **Ihesaldia** miniseriean eta Netflixen **Las chicas de cable** telesailean baita ere. Gaur egun biran dabil **Utzi zure mezua seinalearen ondoren antzezlanarekin**, Work in Progress (Dario Facal) eta Juan Carlos Corazzaren eskoletan interpretazio ikasketak burutzen dituen bitartean.



Nerea Mazo (Bilbo, 1998) bizkaitar aktorea gaztea da. Telebistan **Sabin eta Aitaren Etxea** bezalako telesail ezagunetan parte hartu du, eta bere lanik garrantzitsuena **Go!azen**, gazteei zuzenduriko telesailean izan da pertsonai nagusietako batekin. Zineari dagokionez bestalde, esanguratsuak dira **15 Años y un día**, Gracia Querejetak zuzendua, eta Igelak lanak. Interpretazio lanetan diardun bitartean, Ikusentzutezko Komunikazioa Lizentziatura ikasten dabil Euskal Herriko Unibertsitatean. Eta guzti honetaz gain 10 urteko piano formakuntza dauka, baita hezkuntza musikalean eta abesbatzan ere. Dantzak paper garrantzitsu bat izan du bere traiektorian, 8 urtez ibili baita ikasketetan Bilbaobaila eskolan.